

Bahitua askatu digute

Hondarribia, 26. zk., 1988-11: 3.

Orain arte, bahituak besterenak ziren.

Fermin Urtizbera, "Ximon", bahitu diguten arte.

Abstraktuan eguneroko istripuetan zaurituak eta hilak erraz hartzen ditugu komunikabidez irristaka bezala belarrietatik bihotzera eta burua sartzen zaizkigunean; penaz, noski, baina beste norbaiterena sentitzen dugun gisa. Familia, herriaz edo ideiaz gureak suertatzen direnean bakarrik dakigu egietan zauria nolakoa den.

Hondarribian egun hauetan sentitu dugun bezala.

"Ximon" bahitua izan zen biharamunaren goizean goiz etxetik irteterakoan entzun nuen egunsentiko isilean heldua zen gizon batek egunkaria erakurtzen zetorren beste bati boz goraz deika bezala galdetzen:

"Mutila agertu al da?!"

"Mutila, doinuaz "guren mutila" zen.

Alkateak ere pertsonak dira, eta herriaren aukeraz berezituak gainera.

Alfonso Oronoz bezala.

Herriak aukeratu duen lehen agintariak merezi du, beraz, pertsona gisa berez tokatzen zaionaren gain, karguari dagokion errespetu berezia ere, herriaren zerbitzuan hamaika atsekabeen tximistorratza izatea suertatzen den kargua! Kasu honetan gertatu den bezala; Udalak bereak dituen araubidez erabakia hartu duelako, herriko norbaitek eskua jaso dio! Udalaren ikuspuntuaren aurkakoak libro dira, noski, berea erakusteko; baina iritsi hauek beste nolabait adierazi behar dira, eta ez indarkeriaz.

Hara nola, herri guztiak gaitzetsi duen, bahiketa gaizto baten ondorioz, biziki kondenatzekoa den zerbait gertatu den.

Gertatu zaigun.

Alkate jauna ere herritarra baita.

Ximon libratu dute gaizkileek, eta lasaitu da herria.

Alfonso Oronoz bera ere, noski!

Baina bahituak sufritu duena ahaztuko ez zaion bezala, alkateari ere ez zaio irain honen oroitzapena berehala itzaliko.

Harena badakigu zer den.

Honena, pena handi bat.